

JARDUERA DIDAKTIKOAK
BALUARTE FUNDAZIOA – NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
2018 – 2019 IKASTURTEA

“PERSEFONE: URTAROEN SORRERA”

Nori zuzenduta: Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko ikasleak (1./2./3./4.)

Generoa: Orkestrarako ipuin musikala, dantzariak eta narratzailea, Balet-kontzertuaren formatuan.

Musika: A. Glazunov: *Urtaroak*, opus 67 eta E. Satie: *2. Gymnopedie*

Gidoia eta narrazioa: Ana Hernández Sanchíz

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Data: 2019ko otsailaren 7a (osteguna) eta 8a (ostirala), 10:00etan eta 11:30ean, Iruñeko Baluarteko Auditorioaren areto nagusian.



Sinopsia: *Persefone neska gaztearen historia ezagutuko dugu musikaren eta dantzaren bidez. Zeusen alaba loreak biltzen ari da bere lagun ninfekin batera. Lirio-lore bat hartzera doan unean, lurra ireki eta arrailetik Hades aterako da, neguaren jainkoa, eta neska gaztea eramanen du. Kondairaren arabera, bahiketa horrek Udaberria sorrarazi zuen. Izan ere, Persefone infernuetara eraman zutenean, loreak tristatu eta hil egin ziren, baina itzuli zenean, loreak pozaren eraginez berpiztu ziren.*

Helburuak:

- Ikasgelan ikasleak motibatzea aldez aurreko jardueren bidez, kontzertu sinfoniko batera gogoz joan daitezen; gainera, kontzertuan behar bezala jokatu eta isilik egon behar dutela lantzea. Jarrera horiek beharrezkoak baitira artisten lana errespetatzeko eta ikuskizuna atseginez entzuteko.
- Musikak beste arte-arlo batzuekin duen lotura erakustea, hala nola dantzarekin eta literaturarekin, istorio mitologiko baten egokitzapen eszenikoaren bitartez.
- Entzute aktiboa sustatzea, publikoak kontzertuan era aktiboan parte hartzeko proposamen errazen bidez.
- Gazteendako programazio sinfonikoan ohikoak ez diren musikak eta konposizioak ezagutzera ematea.

Publikoaren parte-hartzea:

- Soinu-giroak birsortzea.
- Kantua soinubakarrean ahoa itxita.
- Abesbatza-errezitaldiak, Grezia Klasikoaren Abesbatzen estiloan.

“MJ18: OSO ANDROIDE BEREZIA”

Nori zuzenduta: Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak (3./4./5./6.)

Generoa: Antzerki-formako Musika Sinfonikoa.

Musika: P. I. Txaiovski: *Loreen balsa, Intxaur-kraskagailua*. W. A. Mozart: *Txirula eta harparako kontzertua, 2. Mvt.* H. Berlioz: *Le Bal, Sinfonia fantastikoa*. A. Hasselmans: *La Source*. M. Ravel: *Suite 2, Lento, Daphnis eta Clohé*. R. Wagner: *Obertura Fligende Hollander, Trimartolod*.

Jatorrizko idia eta harpa: Marion Desjacques

Gidoia eta narrazioa: Jabier Irigoien

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Datak: 2019ko martxoaren 21a (osteguna) Iruñeko Baluarteko areto nagusian, eta 2019ko martxoaren 22an (ostirala), Tuterako Gaztambide Antzokian.



Sinopsia: Orkestra bidaia bat egiteko zorian dago; bidaia bat espazio-denboran zehar, baina azken unean, propulsiarako motorrak huts egin du. Misioa deuseztatua gelditu daiteke. Berriz ere saiatu beharko da, MJ18 izeneko androide oso bereziak lagunduta.

Helburuak:

- Ikasleengan musika sinfonikoarekiko sentiberatasuna eta interesa piztea, kontzertuaren aurretik eta ondotik egindako jardueren bidez.
- Orkestraren posibilitate instrumentalak erakustea, arreta harparen eboluzioaren garapenean jarrita, kontzertuko instrumentu nagusia baita.
- Entzute aktiboa sustatzea, publikoak parte hartuz; horretarako, entzuleen arreta erakarri beharra dago hizkuntza zuzeneko eta dinamiko erabiliz.
- Hainbat garaitako errepertorio askotarikoa erakustea, inprobisazioaren bidezko sormen garapenean oinarrituriko hizkuntza-errepertorioa barne.

Publikoaren parte-hartzea:

- Motibo erritmikoen imitazioa, gorputz perkusioaren bidez (Aurretiazko baliabiderik gabe)
- Abesti bat ahoz ematea (Abestia ikastearen baliabidea eta praktika instrumentala)
- Orkestra sinfonikoaren zuzendaritza (Aurretiazko baliabiderik gabe)

ENTSEGU OROKOR IREKIAK

Nori zuzenduta: Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila, eta Batxilergoko Arteak eta Humanitateak/Gizarte Zientziak modalitateak:

Jarduera: Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonamendu-denboraldiko kontzertuen entsegu orokor batzuetara joatea da.



Helburuak:

- Orkestra profesional baten probasaioen dinamika ezagutaraztea, bai irakasleei, bai eta ikasleei ere.
- Interpretatzaile profesionalen eta orkestrako zuzendarien lana zertan datzan eta nola garatzen den ezagutaraztea.
- “Tradizio akademikokotzat” jotako musika praktikatu eta entzutearekin sentsibilizatzea ikasleak.
- Kontzertuan joko diren piezak sortu dituzten musikagileen bizitza eta lana aurkeztea.
- Pieza horien ezagutzan sakontzea.

Datak:

3. zikloa, 2018ko azaroaren 8a, osteguna (42 minutu)

Nikolai Rimski-Korsakov: Scheherazade, opus 35.

Zuzendaria: Alejandro Posada

8. zikloa, 2019ko martxoaren 14a, osteguna (42 minutu)

Igor Stravinski: Sinfonia Do Maiorrean

Sergei Prokofiev: 1. Sinfonia, Re Maiorrean, opus 25 “Klasikoa”

Zuzendaria: Perry So

9. zikloa, 2019ko martxoaren 28a, osteguna (46 minutu)

Piotr Illitx Txaikovski: 6. Sinfonia Si minorrean, opus 74 “Patetikoa”

Zuzendaria: Manuel Hernández-Silva

13. zikloa, 2019ko maiatzaren 16a, osteguna (47 minutu)

Ludwig van Beethoven: 3. Sinfonia, Mi bemol maiorrean, opus 55 “Heroikoa”

Zuzendaria: Pablo González

OHARRA: Probasaio irekien saio guztiak 11:00etan hasiko dira, Baluarte auditoriumeko areto nagusian. Arrazoi artistikoak direla eta, entsegu orokorrak alda daitezke hemen adierazitakoen aldean.

INTERESEKO ARGIBIDE ETA IZEN-EMATEAK

Izen-ematea:

Interesa duten ikastetxe guztiek [izena emateko galdetegia](#) bete beharko dute **2018ko azaroaren 9a baino lehen**. Ikastetxeak izen-ematearen arabera hurrenkeran onartuko dira. Izena emateko eskaera-prozesua ez da bukatutzat joko, antolatzaileen mezu bat jasotzen ez den bitartean eskaera jaso izana baieztatuko duena.

Lekuak: Hala ikastetxeendako kontzertuak nola entsegu irekiak Iruñeko Baluarte Auditorioko Areto Nagusian egingen dira, 2019ko martxoaren 22ko kontzertuak izan ezik, Tuterako Gaztambide Antzokian egingen baitira.

Kontzertu-datak: Izen-emateak jaso ondoren, eta behin epea itxitakoan, antolatzaileek ikastetxeei jakinaraziko diete onartuak izan diren ala ez jardueran parte hartzeko, eta taldeak saioz saio banatuko dituzte, zer hizkuntza aukeratu den eta zenbat ikasle dauden izen emanik ikastetxe bakoitzeko. Ikastetxeei posta elektronikoz jakinaraziko zaie 2018ko azaroaren 14tik aurrera zer kontzertutara joan beharko duten, betiere saioa, eguna eta ordua zehaztuta.

Ikasmateriala: Irakasleei gida didaktikoaren kopia bat emanen zaie doan, jarduera aurretik ikasgelan landu dezaten.

Iraupena: Kontzertuek 55 minutu inguruko iraupena izanen dute. "Entsegu Irekien" iraupena luze-laburragoa izanen da, saio bakoitzeko lanaren edo lanen arabera, eta era berean, zuzendari bakoitzak programa bakoitzerako dakartzan berariazko planteamenduen arabera.

Prezioa eta jarduerak ordaintzea: Kontzertuetara joateko, 2€ ordaindu behar dira ikasle bakoitzeko. "Entsegu Irekiak", berriz, doakoak dira. Joan-etorriaren kostua ikastetxeek ordainduko dute beti. Irakasle bat joan beharko da izena emandako 10 ikasle bakoitzeko. Izen-ematea ordainketa bakarrean egingen da, banku-transferentzia bidez, kasuan kasuko kontzertuen eguna iritsi baino lehen; horretarako, antolatzaileek faktura bat bidaliko diote ikastetxe bakoitzari jarduera baino 3 aste lehenago, ordura arte izena emanikoen kopurua kontuan hartuta. Kopuru hori ezin izanen da ondoren aldatu.

Jarduera guztietan leku kopuru mugatua dago.

Argibideak: Ione Arroniz Tristán

Hezkuntza- eta gizarte-proiektuen koordinatzailea
Baluarte Fundazioa – Nafarroako Orkestra Sinfonikoa
948 229217 o didacticos@orquestadenavarra.es

